

UMANDI IKASTOLA

Ongi pasaz, hezi



Umandiko saskibaloitako jokalaritako batek jaurtiketa bat prestatzen du.

Umandi Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzek ikasturte honetan 280 izen-emate dituzte eta 238 ikasle

Eskolaz kanpoko ekintzek ikaslearen garapen osoaren alde egiten dute

TESTUA J.B.R.
ARGAZKIAK MANUEL PRIETO

Gasteizko Umandi Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzek, ikasleek ongi pasatzea abiapuntu dutela, heziketa baliokak eta osasungarriak sustatzen dituzte ikaslearen garapen osoaren alde egiteko, non gainera euskara den komunikatzeko eta harremanetarako hizkuntza parte hartzaile guztien artean. Era berean, begiraleek parte hartzaileekiko duten gertutasuna eta familien interes handia ere zati garrantzitsua dira Umandi ikastolako ekintzen garapenean.

Ikasturte honetan, Gasteizko ikastolan eskolaz kanpoko ekintzek 280 izen-emate dituzte eta 238 ikasle. Eskaintza, ikasturte honetan zabaldu dena hiru ekintza berriekin eta programa berriekin beste bitan, ondokoek osatzen dute: dantza eta jolas tailerra, psiko eta jolas tailerra, patinajea, multixiki, antzerkia, multifutbola, Umandi dancing, art attack, mendia, futbola eta saskibaloia. Ekint-

DATUAK

- Zentroan ikasten duten ikasleak. 600 inguru.
- Eskolaz kanpoko ekintzak praktikatzeko dituzten ikasleak. 238.
- Eskolaz kanpoko ekintzetan izen-emateak. 280.
- Eskolaz kanpoko ekintzak. Psiko eta jolas tailerra, dantza eta jolas tailerra, patinekin jolasten, multixiki, antzerkia, multisaskia, multifutbola, Umandi dancing, art attack, mendia, futbola eta saskibaloia.

LABURREAN

Umandi Ikastolak eskolaz kanpoko hiru ekintza berri gehitu ditu eskaintzara

za guztiak Umandi ikastolako guraso elkarteak kudeatzen ditu, heziketa eta kirol arloko zerbitzuak eskaintzen dituen Athlon S. Coop. enpresari esker.

EKINTZA BERRIAK Haur Hezkuntzako ikasle txikienezkat eskaintza ikasturte honetan indartu egin da ikasturte honetan bi ekintza berri gehituz, dantza eta jolas tailerra eta psiko eta jolas tailerra. Biak parte hartze zabalarekin hasi dira zentroan. "Uste dugu familiei gustatu zaiela lana eta dantza edo psikomotritzitatea eta jokoen arteko binomia, izan ere 30 haur ditugu psiko eta jolas tailerrean eta beste 23 dantza eta jolas tailerrean. Psiko eta jolas tailerrean talde berri bat egin dugu eskari guztiari erantzuna eman ahal izateko", azaldu du Umandi Ikastolako eskolaz kanpoko ekintzen arduraduna den Julen Artxagak. Antzerkia, bere aldetik, hirugarren berrikuntza izan da ikasturte honetan Umandiko ikasleentzat, kasu honetan Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleentzat. Ikastolan egin duen lehen urtean ekintza honek 14 izen-emate izan ditu.

Ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan egiten ziren futbol eta saskibaloitako ekintzek ere berrikuntzak dituzte, izan ere izendapen berria dute, multifutbola eta multisaskia, eta programan eduki berriak dituzte. "Ekintza kirol gehiago lantzeraz"



Psiko eta jolas tailerra. Aimar, Asia, Ethan, Jokin, Markel; Ander, Mikel, Imanol, Eneko, Aitor; Irati, Oier, Enara. Begiralea: Oihane.

UMANDI IKASTOLA

ireki da eta, modu honetan, espezializazio progresiboa proposatzen dugu, haurren mugimendu-garapenari lotuta dibertsioa mantenduz. Uste dugu edukiek haurren mugimendu-garapenarekin bat egin behar dutela eta kirolaren berarekin ezagutzari lotuta egon behar dutela. Ikaskuntza hau askoz esanguratsuagoa da eta aberasgarriagoa ikuspuntu askotatik begiratuta kirol ezberdinetatik egindako ekarpenekin. Gaztetxoek, futbol partidak edo saskibaloia partidak jokatu beharrean astebururo, kirol topaketetan ere parte hartzen dute. Gorputzaren garapenera moldatzen gara horrela, haurrek ongi pasatzen dutela bermatuz, izan ere haurrak gustuko duten kirola egiten jarraitzen dute”, azaldu du Julen Artxagak. Modu honetan, multisaskik eta multifutbolak Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan multixikirekin hasitako lanari jarraipena ematen diote eta bosgarren eta seigarren mailan eskola-arteko txapelketetan futbola edo saskibaloia praktikatuz amaitzen dena.

Multixiki da ikastola parte hartze zabalena duen eskolaz kanpoko ekintza, 45 neska-mutilekin, multixikin 21 parte hartzaile dauden bitartean eta multifutbolekin, 14. Futbolekin eta saskibaloian, bere aldetik, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailatan lau talde daude alebinetan. “Haurrei joatea kostatzen ari zaiela uste dugu, Umandirekin identifikazio bat dagoelako eta nahiago dute beraien eskolako etapa ikastolan aprobetxatu”, azaldu du eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzaileak. Ikasturte honetan, 16 begirale arduratzen dira eskolaz kanpoko ekintzez.

Umandi Ikastolako eskolaz kan-



Umandi ikastola. Art attack: Irati, Bea, Noa, Irati, Uxue, Egoitz. Begiralea: Nerea.

poko ekintzak dibertsioa dute motor nagusi, izan ere ezinbestekotzat hartzen dute gainontzeko helburuak lortzeko, hau da, haurren heziketa balioak garatzeko, osasunaren hobekuntza eta haurren bizi kalitatea hobetzea ekintza hauen bitartez, eta euskararen erabileraren promozioa ikasgeletatik kanpo. Eskolaz kanpoko ekintzen bitartez elkarbizitzarekin eta taldeko partaide sentimendua

Umandi Ikastolan parte hartze zabalena duen eskolaz kanpoko ekintza multixiki da, 45 izen-ematerekin

rekin lotutako balio guztiak ere lantzen dira.

Era berean, eskolaz kanpoko ekintzek haurren garapen psikomotorrean eta adimenaren garapenean ere laguntzen dute, eta beren giza gaitasun eta gaitasun afektibo-emozionaletan ere bai. “Dibertsioaren bitartez eta diziplina baten ikaskuntzaren bitartez haurrak bere autoestimazioa indartzea nahi dugu, garapen bat izan dutela ikustea eta hobetzeko gai direla. Begiraleek uneoro animoak ematen dizkiete eta emozionalki parte hartzaile guztiei laguntzen diete. Ekintzak oso garrantzitsuak dira, inbertsio bat dira, izan ere haurrak beren osotasunean pertsona moduan garatzeko lan egiten dute”, amaitu du Julen Artxagak.



Zenbait jokalarik saskibaloian entrenatzen dute.



Saskibaloia. Alebin taldea. Alex (entrenatzailea), Irati, Judith, Maria, Irati, Aroa, Izaro, Maialen; Celia, Maite, Andrea, Jana, Eider.

4 Araba gaztea | Zure argazkiak



Umandi Ikastola. Futbola. Futboleko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzaile taldea, entrenamendu batean. UTZITAKOIA



Umandi Ikastola. Multisaskia. Adrian (entrenatzailea), Unai, Alba, Eder, Marco, Diana, Joel; Asier, Aiara, Ilargi, Maitane, Aitor, Andoni. MANUEL PRIETO



Umandi Ikastola. Multitxiki. Zorion (begiralea), Oier; Unai, Liher, Sira, Hodei, Intza, Olaia, Unai, Ekaitz, Endika. MANUEL PRIETO



Umandi Ikastola. Saskibaloia. Alebin taldea. Xabi, Jorge, Javier, Aketza, Alejandro, Ibai (entrenatzailea); Iker, Gaizka, Mikel, Aner, Ekaitz, Adrian. Ander falta da. MANUEL PRIETO



Umandi Ikastola. Umandi dancing. Irati; Malen, Esti (begiralea), Maider; Sara H., Yaiza, Nora; Maider, Sara, Paula, Lorena, Arrate. MANUEL PRIETO

Zure argazkiak hemen ikustea nahi badituzu, bidali honako helbide elektronikora argazkian agertzen diren lagunen izen abizenak ahaztu gabe:

arabagaztea@hotmail.com



Umandi Ikastola. Patinarekin jolasten. Arrate (begiralea), Maialen, Naroa, Iara, Iraultza, Imanol, Nahia, Henar, Haizea, Sergio, Laura, Olaia, Aritz, Unax, Mikel (begiralea); Ane, Unai, Irei, Irune, Naia, Aiara, Naroa, Ziortza, Maitane, Enara, Ines. MANUEL PRIETO



Boleibola. Escolapias taldea. June (entrenatzailea), Oihane, Andrea, Yaiza, Lorena, Awa; Alba, Sonia, Lorena. MANUEL PRIETO



Umandi Ikastola. Multisaskia. Aroa, Mikel (entrenatzailea), Gorka, Izaro, Anartz, Ander; Unai, Unax, Saioa. MANUEL PRIETO



Boleibola. Lankide A. Janire, Aleksandra, Silvana, Lorena, Ainhoa. Entrenatzailea: Nekane. MANUEL PRIETO



Boleibola. Abendaño Ikastola. Miniboleibola taldea. Cris (entrenatzailea), Unai, Nerea, Naia, Soraya, Yun, Javier. MANUEL PRIETO